

GALAXIAKO

BILATUENA

LUR JOTA

JOHN KLOEPFER

ILUSTRAZIOAK

NICK EDWARDS

desclée





LUR JOTA

ZONBI-EHIZTARIAK BILDUMAREN EGILEA


JOHN KLOEPFER

ILUSTRAZIOAK

NICK EDWARDS

desclée





■ par-mendebaldeko Horizonteak Zientzia-Udalekua-
■ ren gainean zeruak distira egin zuen lau objektu
hegalari ezezagun erraldoiren argiekin. Planeta-
rioaren ondoan, Kevin Brewer eta bere lagunak zur
eta lur begira zeuden, beren gaineko inbasio estra-
lurtarraren aurrean.

—Zer demontre ari da gertatzen? —Kevinek
bere lagunei begiratu zien, Warnerek, Tarak edo
TJk erantzunen bat izango balute bezala. Batek ere
ez zuen erantzunik.

—Ez dakit —esan zion Tarak—. Baina ez dut uste
jakin arte geratu behar genukeenik.

Kevinek beherantz begiratu zion beren laguntxo
estralurtar txikiagotuari. Klyk izeneko espazioko
polizia ziborg bat zen, eta Kevinek gauzak txikia-
gotzeko izpi batekin tiro egin zion aurreko gauean

gaizki-ulertu baten ondorioz. Estralurtartxoak ez zion jaramonik egin Kevini, begiak hurbiltzen ari ziren objektu hegalaria ezezagunen gainetik aldendu ezinik.

Beren galaktoskopio apurtuari begira zegoela, Kevinek ezin zuen sinetsi zenbat arazo eragin zituen beren zientzia-udalekuko asmakizunak. Berak eta bere taldeak, Lurtar Mundialek, galaktoskopioa

eraiki zuten Warneren zientzia fikziozko komiki

bateko diagraman oinarrituz. Baina ez zekitena zen izar-arteko testu-mezulariak funtzionatuko zuela.

Egun gutxian, galaxiako estralurtarrik bilatuena erakarri zuten Lurrera, Mim izeneko izaki more iletzu bat, suntsitzeko gose ikaragarria zuena; gainera, araknopodo erraldoi baten kontra borrokatu ziren



(erdi olagarro eta erdi tarantula erraldoi bat) eta mundua suntsipenetik salbatu zuten.


Baina Mim espazioko kartzelara bueltan bidali ondoren ikusi zuten planeta-jale moreak bere lagun gaizkileei laguntza eskatzeko deitu ziela. Mimen ki-deak une hartan Lurrera iritsi ziren, eta Kevinek ez zekien zer egin.

Kevin eta bere lagunak zeuden lekutik 90 bat metrora, Ipar-mendebaldeko Horizonteak udaleku-ko gainerako pertsona guztiak jantokiaren aurrean pilatuta zeuden. Nerabe taldea luzaroan geratu zen isilik zeruko espazio-ontzi estralurtarrei begira.

OHEak udalekuaren lau izkinetara sakabanatu ziren adaburuak baino gorago. Karranka mekaniko batekin, espazio-ontziek ateak ireki zituzten, eta bakoitzaren barrutik dozena erdi espazio-ontzi txikiago atera ziren.

Jarraian, hodeiak zurrunbilo batean nahastu ziren ama-ontzi erraldoi bat atmosferatik azaldu zenean. Ama-ontzi ikaragarriak eguzkia estali zuen eta udalekuan itzal ikaragarri bat proiektatu zuen.

—Arraioa! —esan zuen Warnerek. Begiak beldurrez eta irrikaz bete zitzaizkion inbasio estralurtarra ikusi zuenean.



Oilo-ipurdia jartzeko moduko oihu batek harri-dura-isiltasuna hautsi zuen. Kevinek batera eta bestera begiratu zuen, udalekuaren barrutia behatuz. Jantokiaren parean, udalekuko jendearen artean kaosa nagusitu zen.


Kevinek Dimpus zuzendaria langileei aginduak oihukatzen ari zela entzuten zuen. Udalekuko neska-mutilen artean kontrola mantentzen saiatzen ari zen.

—Jarri martxan furgonetak! Ez aldentu elkarrengandik! Jarri ilaran!

Dimpus planetariorantz biratu zen eta Lurtar Mundialei oihu egin zien.

—Kevin! Warner! TJ! Tara! Zatozte hona!

Baina Kevinek ez zuen gihar bakarra ere mugitu, izoztuta geratu zen bere adiskide txundituen



ondoan. Ama-ontzi estralurtar izugarriaren azpian zama-ate erraldoi bat zabaltzen hasi zen.

—Zerbait irteten ari da... —TJk begi erdi itxiekin begiratu zuen bere betaurreko potoloen atzetik eta burua atzerantz mugitu zuen. Segundo batzuk geroago, metalezko esfera distiratsu bat atetik flotatzen atera zen.

—Zer da gauza hori? —galdetu zuen Tarak.

Klykek garrasiari eutsi zion metalezko esfera planeatzen ikusi zuenean.

—Hori izozteko izpi-bonba bat da —esan zuen—. Eta hanka egin behar dugula esan nahi du!

—Itxaron —esan zuen Tarak—. Besteak ohartarazi behar ditugu!

Esferak leunki egin zuen hegan udalekuaren erdigunearen gainean eta bide erdian gelditu zen

udalekuko umeen eta begiraleen nahas-mahasaren gainean.

Orduan, distira laranja fluoreszente batekin dir-dir egin zuen.

—Ez dugu horretarako astirik! —esan zuen marruka Klyken ahots txikiak. Umeak berehala jarri ziren martxan eta korrika abiatu ziren basora—. Azkar!

Beren atzean, izozteko izpi-bonbak espiral batean lurrerraino iritsi zen plasmazko distira urdinxka bat askatu zuen, hodeietatik jaisten den tornado bat bezala.

Kevinek Klyk lurretik jaso eta sorbaldan jarri zuen.

—Azkarrago, barraskilo! —oihukatu zion Klykek Kevini belarrira Oregoneko basorantz zihoazela. Kevinen motxilaren uhalari heldu zion lasterketa-zaldi baten gainean balihoa bezala.

Kevinek atzerantz begiratu zuen, udalekurantz.


BIRGZ! Izozteko izpi-bonbak zarata elektros-tatiko bitxi bat atera zuen eztanda egin zuenean. Orduan, bat-bateko uhin bat atera zen plasma-izpiak lurra jo zuen gunetik. Zoruak dar-dar egin zuen. Udalekuko umeak eta begiraleak jarrera izoztutan

geratu ziren izozteko izpi-bonbak beren oinen azpian durundatzen zuela. Bazirudien norbaitek zapiaren joko zaratatsu bat tupustean eteteko botoia sakatu zuela.

—Ez begiratu atzerantz, Kevin! —oihukatu zion Klykek—. Izpiak biok harrapatzea lortuko duzu!

Kevinek bularra sutan zuen zuhaitzetarantz korrika zihoala. Baina ez zuen astirik arnasa berreskuratzeko, eta gainera, astirik izan balu ere, bere azken arnasa izango zatekeen. Bere atzean distira zuri-urdinaren berotasuna nabaritu zuen, gero eta azkarrago hurbiltzen zitzaiola.

Tara, Warner, TJ eta Kevin bi pinuren artetik igaro ziren eta presaka jarraitu zuten basoan barrena



korrika. Katagorri urduri bat Kevinen alboko zuhaitzaren azpiko aldean korrika hasi zen. Izozteko izpi-bonbaren irismen-eremuak zuhaitzaren oinarria jo zuen, eta katagorria oinkada erdian izoztuta geratu zen enborrean gora.

—Putzaaa! –esan zuen Kevinek, arnasestuka.

—Azkarrago, Kevin, azkarrago! –oihukatu zion Klykek.

Kevinek besoak eta hankak azkar mugitu zituen, bere energia guzti-guztiarekin korrika. Aurrerago, Tara eta Warner presaka irten ziren basotik eta neskentzako futbol-udalekuak aintziraren bestaldean zuen futbol-zelaia lasterka zeharkatu zuten. Kevinek eskuinera begiratu zuen. Bera eta TJ elkarren ondoan zihoazen. Bi barraskilo motelek arnasestuka jarraitu zuten, eztandaren uhin zuri-urdina baino azkarrago korrika egiten ahaleginduz.



—Tira, Tejotatxo!

—animatu zuen Kevinek,
arnasestuka, biak
azkar izozten ari
zen basotik kanporantz
lasterka zihoazela, eta
futbol zelaira iritsi ziren.

—Uf! —egin zuen marmar TJk modu zaratatsuan, eta Kevinek kolpe gogor bat entzun zuen.

Kevinek burua alde batera biratu zuen eta begiaren izkina batetik ikusi zuen TJk belar arteko koskor batekin behaztopa egin zuela. TJk, estropezu egitean, besoak astindu zituen. Izozteko izpi-bonba olatu bat bezala agertu zen bere hanken atzealdera hurbilduz.

Kevinek eskua luzatu zuen eta TJri eskumuturretik heldu zion. Oina tinko jarri zuen lurrian eta TJri tira egin zion, iristen ari zen uhinetik aldentzeko.

TJ une batez balaztatu zen, baina gero oreka berreskuratu zuen eta korrika jarraitu zuen. Kevinek ez zuen hainbeste zorte izan, ordea. Orpoetan hotz elektromagnetikoaren hozkada bat nabaritu zuen estropezu egiten zuela eta musuz aurrera erortzen zela.

—Ufa!

Klyk hegan atera zen Kevinen motxilatik, eta soropilean trebetasun ikaragarriarekin lur hartu zuen bi hankekin. Estralurtartxoa izozteko izpiaren irismen-esparrutik kanpo zegoen. Kevin zutitzen saiatu zen, baina ez zeukan astirik. Izozteko izpi-

-bonba azkarregi ari zen hedatzen. Bonbaren uhina hanketara hurbiltzen zitzaiola, Kevinek arnasa sakon hartu zuen azken aldiz eta begiak itxi zituen, izoztuta geratzeko prest.

Handik puska batera, Kevinek begiak zabaltu zituen kontu handiarekin. Atzamarrei eta behatzei eragin zien. Guztia behar bezala mugitzen zen. Eztandaren uhina bere zapatilaren pare-parean gelditu zen, eta Kevin haren irismenetik milimetro eskas batera zegoen.

Kevinek hasperen egin zuen eta bere zapatilen puntekin belar izoztua zapaldu zuen.

—Egun hauetako batean sasoi hobean jarri beharko dut —esan zuen bere artean, izoztu gabeko belardian etzanez.

